



Erreserba Nazionalari (EN) JEOL eskubideak eskatzeko NBEFk ezarritako betekizunak, eskaera motaren arabera (2026ko kanpaina).

Betekizun guztiak erreserba nazionalerako eskaera aurkezten den kanpainako eskaera bakarraren aldaketa amaitzen den egunean bete behar dira.

Nekazari gazteak	Nekazaritza jarduera hasten duten nekazariak
≤ 40 urte, diruz lagundu daitekeen eskaera aurkezten den urtean (jaiotza data ≥ 1986/01/01)	Ez dago betekizunik adinari dagokionez.
Ezin izan du ENaren eskubiderik jaso ENaren oinarritzko laguntzarako eskubideen aurreko esleipenetan, salbu eta epai judizial irmoa badago edo zenbait fasetan gauzatutako landa garapeneko programa (LGP) baten bidez hasi badu jarduera.	Nekazariak ezin izan du ENaren eskubiderik jaso ENaren oinarritzko laguntzarako eskubideen aurreko esleipenetan, salbu eta epai judizial irmoa badago.

ENari lehenengo eskaera aurkeztu aurreko bost urte naturaleko epean ezarri izana ustiatégian, arduradun gisa, eta jarduera epe horretan hasi izana (2021. urtea edo ondorengoa). Lehen aldiz aritzea lan bizitza osoan nekazaritza jardueran, ustiatégia arduradun.

Familia ustiatégian (zuzeneko senidea) laguntzaile izanik autonomo gisa kotizatu edo besteren kontura kotizatu badu, **ez da joko** aldezturik Gizarte Segurantzaren altan egon denik.

Pertsona juridikoak: Pertsona juridikoak kapital sozialean duen partaidetzaren batura partaidetza handiena duen bazkidearen berdina edo handiagoa izatea, gutxienez.

Titulartasun partekatuko ustiatégia: Berriak ENa eskuratu ahal izango du, % 50 betetz gero.

LGP baten esparruan **lehen aldiz ezartzeko laguntza** ematearen aldeko ebazpena. edo

LGPetan eskatutakoaren arabera **prestakuntzaren eta/edo lanbide esperientziaren** bidezko gaikuntza edo maila baliokideko edo goragoko titulazio ofiziala izatea.

edo

Lehentasunezko ustiatégia batean nekazari profesional gisa ezarri izanaren egiaztatzea.

Desabantailan dauden nekazariak

Ustiatégiko arduradunak, JEOLen bidez diruz lagundu daitezkeen hektareak dituztenak, 2015etik nekazaritza jardueran dihardutenak eta sekula oinarritzko ordainketarako eskubidearen sisteman parte hartu ez dutenak.

Ezin dute Erreserba Nazionala baliatu aurreko kasu bakar batengatik ere (gaztea/berria).

Nekazaritza jardueran hasia, ustiatégia arduradun gisa, gutxienez 2015etik → gaitasuna egiaztatuta geratzen da nekazaritza jardueran etenik gabe aritzeagatik.

Betekizun komunak

Nekazaritza jarduera zein den, hari dagokion **Gizarte Segurantzaren norberaren konturako araubidean** alta emanda egotea.

RNaren eskaerari dagokion urteko **eskaera bakarra aurkeztea**.

Pertsona fisikoa edo juridikoa nekazaritza jarduera gauzatzen den ustiatégiaren **titularra edo titularkidea** izatea eta haren benetako kontrola izatea epe luzera.



Irabazpidezko ondasunen araubidean ezkontuta egonda ezkontidea nekazaritza jarduerari atxikita egonez gero, dokumentazio ofizialaren bidez frogatu beharko da ustategia ez dela irabazpidezko ondasunen parte.

OINARRIZKO LAGUNTZARAKO ESKUBIDEEN LAGAPENAK

Laguntza eskubideak nazio lurralde osoko nekazari aktiboen artean laga ahal izango dira, Kanarietako Autonomia Erkidegoan izan ezik.

Hauek dira oinarritzko ordainketarako eskubideak eskualdatzeko modalitateak:

- Salerosketa edo behin betiko lagapena
- Errentamendua edo errentamenduaren amaiera
- **Ustategiaren titularra aldatzea:**
 1. Herentzia
 2. Erretiroa edo nekazaritza jardueran aritzeko ezintasun iraunkorra, baldin eta titular berria hirugarren mailara arteko ahaidea bada
 3. Lana behar baino lehen uzteko onartutako programak edo lanerako ezintasun iraunkorra
 4. Bat egitea, zatiketa eta nortasun juridikoa aldatzea
- Beste batzuk: Erreserba nazionalaren alde borondatez uko egitea.

Oinarritzko laguntzarako eskubideak nekazarien/nekazaritza erakundeen jabetzakoak dira, eta horiek dira, gehienetan, ustategien titularrak. Ustategiaren titularra aldatzen bada, EZ da automatikoki aldatuko oinarritzko laguntzarako eskubidearen titulartasuna. Oinarritzko laguntzarako eskubidea eskualdatu behar da, jabea den pertsonak/erakundeak hala nahi badu.

Lagatzaileak azken eskaera bakarra aurkeztu dion agintaritza eskudunari esku hartzaileek egin beharreko lagapen jakinarazpena aurkezteko epea eskaera bakarra aurkezteko epea hastean hasiko da, eta eskaera bakarra aldatzeko epea amaitzean amaituko.

Argibide gehiago, hemen:

Zuzeneko Laguntzen Zerbitzua

Diputazio kalea 13, behea

01001 Vitoria-Gasteiz

Telf.: 945 18 18 18